**SAGARDOGILE ETA TXAKOLINGILEENTZAT SILICIEri buruzko ESKULIBURUA**

SILICIEn sartzeko Gipuzkoako Foru Ogasunaren web orriko Gipuzkoatarian sartu beharko duzu






**Zeharkako Zergak eta Ingurumen Tributuak Kudeatzeko Zerbitzua - Zerga Berezien Atala**
Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos y Tributos Medioambientales - Sección de Impuestos Especiales
Errotaburu, 2 - 2., 20018 Donostia/San Sebastián
☏ 943 113 000 🖷 943 113 292 zergabereziak@gipuzkoa.eus

Bertan sartzeko behar duzue gako operatiboa, ziurtagiri digitala edo B@kQ






**Zeharkako Zergak eta Ingurumen Tributuak Kudeatzeko Zerbitzua - Zerga Berezien Atala**
Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos y Tributos Medioambientales - Sección de Impuestos Especiales
Errotaburu, 2 - 2., 20018 Donostia/San Sebastián
☎ 943 113 000 🖷 943 113 292 zergabereziak@gipuzkoa.eus

Lehenengo aldiz sartzen zarenean **Ogasun eta Finantzak** sailan ⊕ eman eta zabaltzen diren aukeretan ☆**SILICIE - Kontsultak eta Formularioak** aukeratu.
Sartzen zaren hurrengoetan 🕒 **Erabilitako azken zerbitzuak** atalean azalduko da eta bertatik zuzenean sar zaitezke.



Hemen JEK (CAE) eremua bete behar duzu.
Zerga Mota **Alkohola eta edari Alkoholdunak** aukeratu eta Sartu botoia klikatu.



Honetan zer egin nahi duzun aukeratu behar duzu:

- **Fitxategiak inportatu**, bai idazpenen alta fitxategiak bai idazpenen indargabetze fitxategiak (kontuan izan Euskarri informatikoko kontabilitate-sistemaren bidez kontabilitatea eramateko aukera egina izan behar duzula)------------------------------------------------------------------------------------------→**INPORTAZIO INPRIMAKIAK** sakatu eta 6. orrira joan.
- **Zuzenean** egoitza elektronikoaren bidez idazpenak **alta eman**---------------------------- →**ALTA INPRIMAKIA** sakatu eta 12. orrira joan.
- Egindako idazpenak **kontsultatu**-------------------------------------------------------→**KONTSULTA INPRIMAKIAK** sakatu eta 39. orrira joan.
- Idazpenak **kopiatuz** berriak **sortu** -----------------------------------------------------→**KONTSULTA INPRIMAKIAK** sakatu eta 42. orrira joan
- Zuzenean egoitza elektronikoaren bidez egindako idazpenak **indargabetu** →**KONTSULTA INPRIMAKIAK** sakatu eta 42. orrira joan.



## FITXATEGI INPORTAZIO INPRIMAKIAK

Fitxategia inportatzea aukeratuz gero orri hau azalduko zaizue. Bertan alta fitxategi berri bat (Alta) edo idazpenak indargabetzeko fitxategia (Indargabetu) inportatu nahi duzun aukeratu behar duzu.



Alta aukeratutakoan hiru aukera daude:

- TXANTILOIA JAITSI. Era egokian inportatzeko prestatutako excel kalkulu orri bat da zeinetan jasotzen den beharrezkoak diren eremuak eta eremuen izenak. Eragiketa mota eta zergaren arabera, 578/2019 Foru Aginduak dioena betez, **dagozkien eremuak bakarrik bete behar** dituzu baina denak egon behar dute taulan. **Eremuen izenak ere mantendu behar dira**. CSV fitxategi bat da.
- EREDUA ESKURATU. Aurreko txantiloia datu batzuk beteta duelarik adibide gisa.
- Fitxategia hautatu sakatu eta zure ordenagailuko karpetak azalduko zaizkizu. Fitxategia igo.Ordenagailuan, dagoen karpetatik, fitxategia aukeratu eta SILICIEra igotzeko.

Hau da erabil dezakezun txantiloiaren formatua, ez baduzu beste aplikaziorik fitxategia sortzeko. Zutabe asko ditu baina bakarrik batzuk, dagozkienak, bete behar dira. Gainerakoak inoiz bete behar ez dituzunak, ezkutatu ditzakezu, baina ezin dituzu ezabatu. Horrela erabilgarriago izan dezakezu.
**Betetzeko garaian baliagarria egingo zaizu 14. orritik aurrera formulario bidez aurkezteko ematen diren argibideak ikustea.**

Erabiltzen baduzu gure txantiloia hemen bete beharko dituzu datuak




Fitxategia hau gorde behar da beti CSV formatuan




Gordetzen duzunean mezu hau azaltzen  bazaizu, fitxategia gorde ahal izateko CSV formatuan, Bai klikatu beharko duzu.




Bai zure aplikazioaren bidez, bai gure txantiloia erabiliz, gordetako fitxategia igo behar duzu aplikaziora.

Fitxategia igo ondoren pantaila hau azalduko zaizu, eta bertan ikus dezakezu ea akatsik gabe grabatu den



Eta kontsulta dezakezu zer den grabatu dena Erantzun fitxategia jaitsi sakatuz.



Irekitzen baduzu fitxategia horrelako kalkulu orria azalduko zaizu zuk sartutako datuekin eta esleitu dizuten idazpen-zenbakiarekin.



## ALTA INPRIMAKIA

Idazpenak (asiento) zuzenean egoitza elektronikoaren bidez alta emateko formulario bat zabaltzen da. Hau erabili behar duzu beste aukerarik egin ez baduzu. 24 lanordu dituzu izandako mugimenduak jasotzeko.
Formulario honetan ze eremu bete behar diren eta eremu bakoitzean ze jarri behar den azaltzen da.
**Zuen asmoa bada zuen aplikaziotik (edo lehen aipatutako txantiloitik) idazpenak inportatzea, hemen azaltzen duguna baliogarria egingo zaizue datuak betetzeko.**



Alta ematerakoan IFZ, Aurkezlearen izena eta JEK (CAE) eremuak beteta azalduko dira.




**Oharra: Jarraian ematen ditugun azalpenetan nahastuta dago ardo ekoizpena eta sagardoarena, baina establezimendu berdinean ezin dira bi produktuak egin, horretarako bi establezimendu desberdin eduki beharko zenituzke eta ondorioz bi JEK/CAE, bata ardogilearena eta bestea sagardogilearena.**




## Establezimenduko datuak

Eremu hauek beteta azaltzen dira.

## Idazpen zenbakia

**Barne erreferentzia zenbakia**. Hau da zuk idazpen horri ematen diozun barruko zenbakia. Hau bakarrik bete beharko da fitxategia inportatuz sistemarekin.

**Aurretiazko idazpen zenbakia**. Kasu hauetan beteko duzu:

a) Baliogabetutako idazpenaren ordezko idazpen berria alta emateko.
b) Idazpena egiteko arrazoia establezimendutik ateratako produktu bat berriro sartu dela jasotzeko.

## Data datuak

**Mugimenduaren data**. Mugimendua zein egunetan izan den jarri behar duzu. Irteeretan zuen establezimendutik irten denean eta sarreretan sartu denean, gainerako kasuetan gertatu denean. Ekoizpen eragiketetan hilaren azken egunean hilabete osoan egindakoa.

**Kontabilitate erregistroaren data**. Datu hau ezin da aldatu, berez idazpena grabatu duzuneko data delako.

## Mugimendu datuak

### Mugimendu mota




**Honetan, mugimendu moten artean eragiketari dagokiona hautatu behar duzu. Orain aipatuko ditugu zuek noizbait erabili beharko dituzuenak:**

➢ **<u>Kontabilitatearen irekiera</u>: A01**

**A01 - Irekiera** (+ zeinua): Kontabilitatea era berri honetan eramaten hasten zarenean produktuen izakinak jasotzeko, zergaren xede izan edo ez izan. Bai elaboratutako produktuak, zergapetuak (sagardoa edo ardoa) baita lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa) ere.

- **<u>Lehengaien eta produktuen sarrerak</u>: A02 – A04 – A06**

Nondik datozen kontuan hartuta:




**A02 - Barruko sarrerak** (+ zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira barruko lurralde esparrutik datozen produktuen sarrerak, zergaren xede izan edo ez izan. Bai elaboratutako produktuak, zergapetuak (sagardoa edo ardoa) baita lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa) ere.

**A04 - EBko sarrerak** (+ zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira barrukoa ez den Europar Batasuneko lurralde esparrutik datozen produktuen sarrerak, zergaren xede izan edo ez izan. Bai elaboratutako produktuak, zergapetuak (sagardoa edo ardoa) baita lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa) ere.

**A06. Inportazioen sarrerak** (+ zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira hirugarren herrialde batetik datozen produktuen sarrerak, zergaren xede izan edo ez izan. Bai elaboratutako produktuak, zergapetuak (sagardoa edo ardoa) baita lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa) ere.

**Oharra: Hilabete natural batean lehengaien sarrerei buruzko kontabilitate idazpenak bidali ahal izango dira hileko kontabilitate idazpen bakar batean modu agregatuan (azken egunean egindakotzat joko da).**

- **<u>Lehengai eta produktuen irteerak eta Helmuga aldaketa</u>: A08 – A10 –A11 – A13**

Nora bidaltzen diren kontuan hartuta:




**A08 - Barruko irteera** (- zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira barruko lurralde esparruko helmuga duten irteerak, aurretik kontabilizatutako produktuenak. Bai elaboratutako produktuak, zergapetuak (sagardo edo ardoa) baita lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa) ere.

**A10 - EBrako irteera** (- zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira barrukoa ez den Europar Batasuneko lurralde esparrurako irteerak, aurretik kontabilizatutako produktuenak. Bai elaboratutako produktuak, zergapetuak (sagardoa edo ardoa) baita lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa) ere.

**A11 - Esportazioen irteera** (- zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira hirugarren herrialde bat helmuga duten irteerak, aurretik kontabilizatutako produktuenak. Bai elaboratutako produktuak, zergapetuak (sagardoa edo ardoa) baita lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa) ere.

**A13 - Helmuga aldaketa** (zeinurik gabe): Idazpen honen bidez kontabilizatzen dira helmuga aldaketa batetik eratorritako datuak, ZBEaren 29. artikuluaren A1b) 7. eta B1e) apartatuei eta, hala badagokio, ZBEaren 38. artikuluari jarraituz. (ZBE=Zerga Berezien Erregelamendua).

➢ <u>**Produkzio mugimenduak**</u>**: A14 – A15**




**A14. Autokontsumoa/erabilia (- zeinua):** Mugimendu honen bidez idazten da **kontabilizatutako produktuen kontsumoa edo erabilera**, produktu horiek **zergaren xede izan ala ez**. Produktu horiek **kontsumitu edo erabiliko dira establezimenduaren barruko fabrikazio edo eraldaketa prozesuetan**. Adibidez, lehengaiak (hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsak) erabiltzen direnean sagardoa edo ardoa ekoizteko; edo beste establezimendu batetan elaboratutako produktuak, sagardo edo ardo lasaia, erabiltzen direnean sagardo edo ardo aparduna ekoizteko.

**A15 - Fabrikatua/lortua** (+ zeinua): Mugimendu honen bidez idazten da kontabilizatutako establezimenduaren barruko prozesuan sortutako produkzioa.

**A41 Autokontsumoa/norberaren eragiketetan erabilitakoa (zeinua -):** Mugimendu honen bidez idazten da **zerga bereziei lotutako norberaren establezimenduan egindako produktu elaboratuen kontsumoak edo erabilerak.** Produktu horiek kontsumitu edo erabiliko dira establezimenduaren barruko fabrikazio edo eraldaketa prozesuetan. Adibidez, norberaren establezimenduan egindako sagardo edo ardo lasaia erabiltzen denean sagardo edo ardo aparduna ekoizteko**.**

- **<u>Beste ohiko mugimenduak (Birsarrera, Suntsitzea, Galera, Kontaketan aldea)</u>: A24 – A25 –A28 – A29 – A30 – A31 – A32 – A33 – A34 – A35 – A36**




**A24 - Birsarrera, ZBE 38.1. artikulua** (+ zeinua): Fabriketara eta gordailu fiskaletara mugatutako mugimendua. Mugimendu honen bidez idazten da zergaren xede diren produktuen birsarrera, baimendutako hartzaileari ezin izan bazaio eman, ZBEaren 88. artikuluaren 1. apartatuari jarraituz.

**A25 - Birsarrera, ZBE 38.2. eta 38.3. artikulua** (+ zeinua): Fabriketara eta gordailu fiskaletara mugatutako mugimendua. Mugimendu honen bidez idazten da zergaren xede diren produktuen birsarrera, ZBEaren 38. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako kasuetakoa.

**A28 - Suntsitzea** (- zeinua): Mugimendu honen bidez idazten da zergaren xede diren produktuen suntsipenak, establezimendu barruan gertatutakoak.

**A29 - Galerak, ZBL 6.2. artikulua** (- zeinua): Fabriketara eta gordailu fiskaletara mugatutako mugimendua. Mugimendu honen bidez idazten dira ZBLaren 6. artikuluko 2. apartatuak erreferentzia egiten dien galerak.

**A30 - Diferentziak, biltegiratze gutxiago** (- zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira gutxiagoko diferentziak, kontabilizatutako eta establezimenduan biltegiratutako produktuetakoak. Hileko azken egunean, izakinak kontabilizatu beharko dira, eta alderatu kontabilitatean kalkulatutakoekin.

**A31 - Diferentziak, biltegiratze gehiago** (+ zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira gehiagoko diferentziak, kontabilizatutako eta establezimenduan biltegiratutako produktuetakoak. Hileko azken egunean, izakinak kontabilizatu beharko dira, eta alderatu kontabilitatean kalkulatutakoekin.

**A32 - Diferentziak, fabrikatze gutxiago** (- zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira gutxiagoko diferentziak, fabrikazio unitate edo prozesu bakoitzean sartzen diren produktuen eta bertatik irteten diren produktuen baturaren artekoak.

**A33 - Diferentziak, fabrikatze gehiago** (+ zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira gehiagoko diferentziak, fabrikazio unitate edo prozesu bakoitzean sartzen diren produktuen eta bertatik irteten diren produktuen baturaren artekoak.

**A34 - Diferentziak, garraio gutxiago** (zeinurik ez): Mugimendu honen bidez idazten dira gutxiagoko diferentziak, zerga berezien xede diren produktuen garraioan izandakoak, arauzko ehunekoak gainditzen dituztenak, hasieran kontabilizatutako araubide fiskala aldatzeko.

**A35 - Neurketen doikuntza positiboak** (+ zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira hasieran kontabilizatutako kopuruen doikuntza positiboak, geroko neurketa edo kuantifikazio baten ondoriozkoak.

**A36 - Neurketen doikuntza negatiboak** (- zeinua): Mugimendu honen bidez idazten dira hasieran kontabilizatutako kopuruen doikuntza negatiboak, geroko neurketa edo kuantifikazio baten ondoriozkoak.


**Zeharkako Zergak eta Ingurumen Tributuak Kudeatzeko Zerbitzua - Zerga Berezien Atala**
Servicio de Gestión de Impuestos Indirectos y Tributos Medioambientales - Sección de Impuestos Especiales
Errotaburu, 2 - 2., 20018 Donostia/San Sebastián
☏ 943 113 000 🖷 943 113 292 zergabereziak@gipuzkoa.eus

## Gutxiagoko diferentziei buruzko informazio osagarria




**Gutxiagoko diferentziei buruzko informazio osagarria**. Gutxiagoko diferentzia antzematen denean (A30, A32 edo A34 mugimenduak) honako kodeen artean aukeratu behar duzu diferentzia hori non eman den azalduz:

**VB01** - Muztioaren eraldaketa.

**VB02** - Elaboratzen ari den produktua biltegiratzea.

**VB03** - Elaboratzen ari diren produktuak estaldurarik gabeko egurrezko ontzietan biltegiratzea.

**VB04** - Bukatutako produktuak biltegiratzea.

**VB05** - Estaldurarik gabeko egurrezko ontzietan bukatutako produktuak biltegiratzea.

**VB06** - Botilatzea.

**VB07** - Garraioa.

## Zerga Araubidea




**Zerga Araubidea**. Produktuak horrelako araubidetan izan ditzakezu:

1 - **Lotu gabea**. Lehengaiak: Hartzitu gabeko muztio, sagar edo mahatsa.

2 - **Suspentsiboa**. Sagardoa edo ardoa sagardotegian edo txakolindegian dagoen bitartean, beste sagardogile edo txakolingilera bidaltzen edo jasotzen denean, edo Europar Batasunera edo esportaziora bidali edo jasotzen denean. Zirkulazioa beti EMCS agiriarekin doa.

3 - **Salbuetsia**. Ozpina egiteko bidaltzen denean. Zirkulazioa beti EMCS agiriarekin doa.

4 - **Tasa osoarekin sortutako zerga**. Hau ematen da Txotx garaian edo beste garaietan sagardotegi nahiz txakolindegian kontsumitu edo saltzen denean, baita ere, ez baldin badago aurretik aipatutako 3 kasuetariko batean, establezimendutik ateratzen denean.

## Frogagiri datuak

Mugimendua babesten duen agiriari dagozkion datuak. Ez duzu atal hau bete behar idazpen bakar batean modu agregatuan hainbat mugimendu jasotzen badituzu, Foru Aginduak ezarritako kasuetan.




**Frogagiri mota.** Normalean erabiliko dituzunak honako hauek izango dira:

**J01** - Zirkulazio Dokumentu Administratiboa (E-DA). Hau aukeratu behar da EMCS agiriarekin bidali edo jaso denean. Hau da, produktuen zirkulazioa erregimen supentsiboan edo salbuetsian egiten denean.

**J02** - Larrialdirako laguntza dokumentua. EMCS zirkulazio dokumentu administratiboa ezin izan duzunean sortu.

**J03** - Zirkulazio albarana. EMCS agiria beharrezkoa ez denean. Produktuen zirkulazioa suspentsibo edo salbuetsia araubideetan egiten ez denean. Ohiko albarana.

**J09** - Fabrikazio lanaren partea. Sagardoa edo ardoa ekoiztu behar denean. Fabrikazio bakoitzarengatik parte bat.

**J11** - Beste batzuk. Adibidez zirkulazio albaranaren ordez fakturarekin bidaltzen edo jasotzen denean.-Bertan albaranak jaso behar dituen eremu guztiak jaso behar dira.

**Frogagiri zenbakia**. ARC zenbakia EMCS agirietan edo dagokion zenbakia gainerakoetan.

**<u>Jatorri/Helmuga datuak</u>**




**Identifikazio dokumentuaren mota**. 1 edo 2 Espainiako edo Europako IFZ, eta 3 Europatik kanpokoa bada.

**Identifikazio dokumentu zenbakia**. IFZ zenbakia. Inportazio edo esportazio kasuetan aduanaren kodea jarriko da.

**Sozietatearen izena**.

**JEK/SEED zenbakia**. Estatukoa denean JEK (CAE), Europakoa denean Seed zenbakia (Excise number).

**<u>Zerga berezia jasanarazteari buruzko datuak</u>**

Datu hauek bakarrik bete behar dituzu sagardoa edo ardoa beste norbaitentzat ekoizten duzunean, baldin eta sagarra edo mahatsa berea bada eta bere izenean ateratzen bada ekoiztutako produktua zure establezimendutik.

## Produktuaren datuak

- **Zerga Epigrafea eta Epigrafe kodea**

  Sagardoaren edo ardoaren mugimenduak jasotzen dituzunean bakarrik bete behar dituzu.




**Zerga Epigrafea**. Honako epigrafeak izan daiteke:

1 - **Ardo lasaiak**

2 - **Ardo apardunak**

3 - **Edari hartzitu lasaiak**

4 - **Edari hartzitu apardunak**

**Epigrafe kodea**




**Epigrafe kodea**. Hauetatik zer den aukeratu:

**V0** - Ardo Lasaiak

**V1** - Ardo apardunak

**V2** - Edari hartzitu lasaiak

**V3** - Edari hartzitu apardunak

➢ **NC kodea**. Hauetatik dena idatzi.

**Lehengaiak:**

Sagarra -------------08081010

Mahatsa -----------08061090

Sagar muztioa ----20097199, 20097911, 20097919 edo 20097998

Mahats muztioa 20096110, 20096190, 20096911, 20096919, 20096951, 20096959, 20096971, 20096979 edo 20096990

**Elaboratutakoak:**

Sagardoa ----------2206

Ardoa ---------------2204

- **Gakoa**

Eremu hau lehengaien mugimendua bada bete behar duzu.




**Gakoa**. Lehengaien mugimendua denean, aukeratu:

**F01** - Sagarra

**V01** - Mahatsa

**V02** - Muztioak (kontzentratuak ere bai)

➢ **<u>Kopurua eta Neurketa Unitatea</u>**




**Kopurua.** Mugitutako produktu kantitatea jaso behar duzu. Puntua erabili dezimalak adierazteko. Formatuak osoko 13 zifra eta 3 zifra dezimal izan behar ditu gehienez (XXXXXXXXXXXXX.YYY). **Norberaren fitxategia inportatzen** denean puntua eta koma onartzen dira dezimalak adierazteko (XXXXXXXXXXXXX.YYY edo XXXXXXXXXXXXX,YYY).

**Neurketa unitatea.**

- **Neurketa unitatea kilogramotan**




Kilogramotan honako lehengaiak:

**KGM** - Ardogintzako mahatsa

**KGM** - Sagarra

**KGM** - Sagar kontzentratua

**KGM** - Ardoa eta edari hartzituak: pisuaren arabera neurtutako beste lehengai batzuk

- **Neurketa unitatea litrotan**




Litrotan honako lehengai eta elaboratutako produktuak:

**LTR** - Mahats muztioa

**LTR** - Sagar muztioa

**LTR** - Ardoa eta edari hartzituak: bolumenaren arabera neurtutako beste lehengai batzuk

**LTR** - Ardo lasaiak

**LTR** - Ardo apardunak

**LTR** - Edari hartzitu lasaiak

**LTR** - Edari hartzitu apardunak

- **<u>Produktuaren Deskribapena eta Produktuaren Erreferentzia</u>**




**Produktuaren deskribapena**. Sagardo edo ardoaren deskribapen komertziala.

**Produktuaren erreferentzia**. Eremu hau bakarrik beteko da sagardo edo ardo mota ezberdinak badituzu, bakoitza bereizteko.

- **<u>Alkohol-Gradua eta Alkohol puruaren kantitatea</u>**




**Alkoholaren Gradua.** Sagardo eta ardoen mugimenduetan honek duen graduazioa jaso behar duzu. Puntua erabili dezimalak adierazteko. Formatuak osoko 3 zifra eta 3 zifra dezimal izan behar ditu gehienez (XXX.YYY). **Norberaren fitxategia inportatzen** denean puntua eta koma onartzen dira dezimalak adierazteko (XXX.YYY edo XXX,YYY).




**Alkohol puruaren kantitatea**. Mugitutako sagardo edo ardo kantitateak duen alkohol puru kantitatea jaso behar duzu. Puntua erabili dezimalak adierazteko. Formatuak osoko 13 zifra eta 3 zifra dezimal izan behar ditu gehienez (XXXXXXXXXXXXX.YYY). **Norberaren fitxategia inportatzen** denean puntua eta koma onartzen dira dezimalak adierazteko (XXXXXXXXXXXXX.YYY edo XXXXXXXXXXXXX,YYY).

## Ontziaren datuak

Sagardo edo ardo mugimenduetan bete behar duzu.




**Ontzi mota**. Aukeratu mugitutako sagardo edo ardoaren ontzia honako mota hauetatik zeinetara egokitzen den:

**VF01** - Barrutik edo kanpotik estali gabeko egurrezko ontziak. Egurrezko kupelak

**VF02** - 201 litrotik gorako ontziak

**VF03** - Gainerako ontzi motak




**Ontziaren edukiera**. Ze bolumeneko ontzietan mugitu duzun sagardoa edo ardoa jaso behar duzu. Puntua erabili dezimalak adierazteko. Formatuak osoko 5 zifra eta 3 zifra dezimal izan behar ditu gehienez (XXXXX.YYY). **Norberaren fitxategia inportatzen** denean puntua eta koma onartzen dira dezimalak adierazteko (XXXXX.YYY edo XXXXX,YYY)

**Ontzi Kopurua**. Zenbat ontzi mugitu dituzun jaso behar duzu.-Formatuak osoko 10 zifra izan behar ditu gehienez (XXXXXXXXXX).

## Fabrikazio/Lortze Eragiketen Datuak

Atal hau mugimendu mota A14, A15 edo A41 denean azaltzen da.




**Mugimendu mota "A-14 Autokontsumo/erabilia", "A-15 Fabrikatua/eskuratua"** edo **"A-41 Autokontsumoa/norberaren eragiketetan erabilitakoa"** denean Fabrikazio/Lortze Eragiketen Datuak atala azalduko zaizu. Ekoizpenaren eragiketei buruzko datuak eskatzen zaizkizu. Eremu hauek **"Fabrikazio/Lortze eragiketen datuak"** tituluan daude.

**Oharra: Hilabete natural batean ardoa, muztioa eta edari hartzituak egiteko eragiketa hauei buruzko kontabilitate idazpenak bidali ahal izango dira hileko kontabilitate idazpen bakar batean modu agregatuan (azken egunean egindakotzat joko da).**




**Eraldaketa eragiketa mota**. Eremu honetan izapidetzen ari zaren eragiketa hautatu behar duzu:

**V01** - Ardoaren elaborazioa

**V02** - Edari hartzituen elaborazioa

**V03** - Sangriaren elaborazioa

**V04** - Desalkoholizazioa

**V05** - Botilatzea/Ontziratzea

**V06** - Kortxoa kentzea

**V07** - Fabrikazio beste eragiketa batzuk

**V08** - Eraldaketako beste eragiketa batzuk

**V09** - Beste eragiketa batzuk

**Eragiketa zenbakia**. Eragiketari emandako fabrikazio-zenbakia jarri behar duzu. Idazpen bakar batean modu agregatuan (ikus 16. orrialdea) hainbat mugimendu jasotzen badituzu, Foru Aginduak ezarritako kasuetan, mugimenduak eman diren hilabetea jarri behar duzu.

**Fabrikazio unitatearen kodea**. Eremu hau beteko duzu fabrikazio unitate bat baino gehiago dituzunean bata besteengandik bereizteko.

**Fabrikazio unitatearen deskribapena**. Fabrikazio unitate bat baino gehiago duzunean erabilitakoaren izena.

## ➢ Oharrak eta Idazpenaren alta




**Oharrak.** Eremu hau librea da. Azalpenak eman nahi dituzunean eman ahal izateko.

**Idazpenaren Alta.** Behin mugimenduari dagozkion eremuak beteta Alta botoia eman behar duzu. Erroreak badaude errore kodea, ze eremutan eta ze errore ematen den azalduko zaizu. Errorera zuzenean joateko aukera ere emango dizu. Ondo badago, “Idazpenaren alta ondo eman da” azalduko zaizu eta idazpen zenbakia emango dizu.

## KONTSULTA INPRIMAKIAK

Bukatzeko aukera duzu idazpenak kontsultatzeko Kontsulta sakatuz



Eta hemendik kontsulta dezakezu egindako idazpenak




Ezagutzen edo komeni zaizkizun irizpideak bete eta Bilatu klikatu

Irizpide horiek betetzen dituzten grabatuta dituzun idazpenak azalduko zaizkizu, beti ere 2000 erregistro gehienez. Kopuru hau gainditzen denean kontsulta zehatzago bat egin beharko duzu filtroen aukerez baliatuz.


Emaitza

24 ERREGISTRO

Excela exportatu | Fitxategia exportatu | Zutabeak Erakutsi/Ezkutatu    Aurkitu:

| Idazpen Zenbakia | Mezuaren CSV | Aurkezpen Data | Barne Erreferentzi Zenbakia | Idazpen Mota | Aurretiazko Idazpen Zenbakia | Mug |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 2020ES00020F1088MEXM00000001 | | 2020-02-18 11:03:26.67 | 2000001 | 1 | | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000002 | | 2020-02-18 11:37:18.206 | 2000000002 | 1 | | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000003 | | 2020-02-19 09:19:29.437 | 200000003 | 1 | | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000004 | | 2020-02-19 09:33:58.437 | 200000004 | 1 | | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000005 | | 2020-02-19 09:41:16.5 | 200000005 | 1 | | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000006 | | 2020-02-19 11:06:54.624 | 200000000011 | 1 | | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000007 | | 2020-02-19 11:11:49.871 | 20000000012 | 1 | | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000008 | 8NJATNTZJVMGNV98 | 2020-02-19 11:56:56.537 | 2000000002 | 2 | 2020ES00020F1088MEXM00000002 | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000009 | | 2020-02-19 12:03:11.920 | 200000013 | 1 | 2020ES00020F1088MEXM00000002 | 202( |
| 2020ES00020F1088MEXM00000010 | | 2020-02-20 11:47:27.179 | 20000014 | 1 | | 202( |

1 -etik 10 -erako erregistroak erakusten, guztira 24 erregistro    Aurrekoa 1 2 3 Hurrengoa

Filtratutako idazpen hauekin egin dezakezu:

- **Excela esportatu.** Exceleko fitxategi bat zabalduko zaizu hemengo datuak jasoz.
- **Fitxategia esportatu.** Exceleko .csv fitxategia zabalduko zaizu datuekin.
- Idazpenetan sartu**. Idazpen zenbakia**n klikatuz gero idazpena irekiko da eta xehetasunak azalduko zaizkizu.

Behin idazpenaren xehetasunak azaltzen direnean




Xehetasunak kontsultatzeaz gain egin dezakezu:

- Idazpena Kopiatu. Idazpen berdintsua denean beste idazpen berri bat sortzeko. Horrela hasieratik bete beharrean bakarrik daturen bat (unitateak, ontziak, …) aldatu behar duzu.
- Idazpena Indargabetu. Ezabatu nahi duzunean.